

# #JesusGureanEreBidelagun HELDUAK


DELEGACIÓN DE ANUNCIO Y CATEQUESIS  
FEDE ZABALKUNDE ETA KATEKESIRAKO ORDEZKARITZA

Sinestezina dirudi eta, hala ere, bi hilabete igaro dira konfinamendua hasi zenetik. Une honetan, beharbada zail egiten zaigu egoera jasatea. Baliteke, denboraldi honi ekitean genuen baretasun eta lasaitasunaren arrastorik ez izatea. Beharbada WhatsAppeko taldeak isildu egin dira eta bideo-deien kontua ez zaigu hain dibertigarri iruditzen...

Neon-argi batzuk itzalita eta zarata batzuk isilduta, beharbada baldintza egokiak izango ditugu egoera honek aurrez aurre jarri digun makina bat erronkari nola aurre egiten ari garen ikusteko. Familian 24 orduz denok elkarrekin bizitzeko erronka; bakarrik egoteko erronka; telelana egiteak dakarren erronka; lana galtzearen erronka; gure seme-alaben irakasle bihurtzearen erronka; gure nagusien aita edo ama izatearen erronka; gure etxeetatik Eliza izatearen erronka...

Posible da gure etxeetatik jainkoa eguneroko bizitzan aurkitzea eta Jesusen jarraitzaile izaten ikasten jarraitzea?

Sakatu galdera bakoitzaren gainean



## Jesukristoren jarraitzaile izaten ikasten jarraitu

Jesusek diosku: “bitza osoa, bizia ugari agintzen dizut, baina ez zorientasun perfektuaren burbuila. Utz iezaiozu zeure buruari begiratzeari, atera zeure erosotasunetatik, arriskatu, ekin bideari, konprometitu, bihotz-berritu, zailtasunei aurre egin, borrokatu, barre-algara egin, badakizu-eta beti zeurekin noana”.

## Ausartzen zara nire bidelagun izaten? Jarraitu nire arrastoen atzetik!

Sakatu arrasto bakoitzaren gainean

Urrats 1,  
Entzun!

Urrats 2,  
Konfidantza izan!

Urrats 3,  
Hazi  
senidetasunean!

Urrats 4,  
Konprometitu zaitetz  
azkenen alde!

Urrats 5,  
Eraldatu!

Urrats 6  
eskerrak eman!

## Hausnartzeko...

1.1. Arrastoak errepasatu..., nahi izanez gero, Jesukristoren jarraitzaile bezala dudan esperientziak funtsezkoak diren beste batzuk gehituko ditut... Pazko aldi honetan, ondo nabil? Nire oinkadei dagokienez, zeintzuk sortzen dute bizia, poztasuna edo itxaropena neuregan eta beste batzuegan? Zer uzten ari naiz egin, esan, erakutsi... gabe?

2. Gizarte ziurgabetasunez eta larritasunez beteriko aldi honetan, sumatzen dut Jesukristo biziaren, itxaropen-eragilearen presentzia? Zein egoeratan? Zein pertsona edo gertaeraren bidez?

3. Krisialdi oro, aldaketa pertsonal, sozial eta estrukturalerako aukera izan daiteke. Atzematen dut eraldaketa-zeinurik hartu-eman, lan, gizarte, politika... dinamiketan? Jesusen jarraitzaile bezala, eraldaketarako zein dei pertsonal jaso dut? Non, noretzat, izan naiteke “gatz eta argi”? “Eskuak poltsikoetatik atera baditut”, non jar ditzaket zuzentasunaren eta guztion onaren esanetara datorren aldi honetan?

## Jainkoarekin bat egiteko ...



Sakatu irudi honen gainean.